

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Elurra kentzeko 37 makina ere alertan daude tenperaturetan iragarri den jaitsiera orokorraren aurrean

Hauxe da Nafarroako Gobernuaren 2019ko Neguko Bidezaintza Planaren barruan antolatu den lehendabiziko mobilizazio garrantzitsua

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 9

Nafarroako Gobernuak elurra kentzeko 37 makina ere mobilizatuko ditu gaur, asteazkena, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, tenperaturetan nahiz elur-kotan iragarri den jaitsiera orokorraren ondorioz izotz plakak ez sortzeko prebentzio lanak egin ditzaten. Elurra egiteko aukera arras txikia bada ere, errepideetan sor daitezkeen izotz plaken kariatz kontu handiz ibiltzea eta ondorengo [gomendioak](#) kontuan hartzea aholkatu du.

Zehazkiago esanda, mobilizatutako ekipoak alertan egonen dira Pirinioetako ibarretan, Lizarerrian, Leitzarango, Sakanako eta A-1 (Etxegarartetik) autobideetako lotuneetan, Irurtzun aldean, Nafarroako ipar-mendebaldeko eskualdeetan, Iruñerrian, Tafallan eta Tuteran so daitezkeen gorabeherak artatzeko. Donejakue Bideko nahiz Pirinioko autobideen enpresa kontzesiodunek eta AP-15 autobidearenak ere beraien makinak gehituko dizkiote dispositibo honi bide guztietan ibilgailuen joan-etorri egokiak bermatzeko.

Gaurkoa da, neguko giroaren eraginez errepideetan gerta daitezkeen gorabeherak artatzeko abiarazi den garrantzi handiko lehendabiziko mobilizazioa, [Nafarroako Errepide Sareko 2018/2019ko Neguko Planean](#) ezarritakoaren harira.

Agiri horretan aurreikusita dagoenez, 314 pertsona ere bidera daitezke, Nafarroako Gobernuko langileak zein errepideak kontserbatzeko kontratuei atxikitakoak, neguko kanpainarako. Planak elurra kentzeko ehun makina ere barne dituen dispositiboa aurreikusia du, eta horiei gehitu behar zaizkie AP-15 zein A-12 eta A-21 autobideetako enpresa kontzesiodunen ekipoak, baita Nafarroako toki erakundeak ere.